1

Platica para la Dominica 18. despues de Pentecostes.

Sobre el pecado de la Embidia.

Vt quid cogitatis mala in cordibus vestris?

¿ Cergaitic daucazube pensamentu dongac ceuben biotce tan? S.n Matheoen 9 Cap.

Eztago gauza ain perfecto, eta santuric, dongac mes preciatu, eta condenatcen eztaubenic. Corrompitcen dit ube euren embidien gaiztotasunac virtute ederrac, eta iruziteen ditube accinoric oneenen gañean euren murmuracinoen, edo euren juicio temerarioen venenoa. Ysudinac suguearen, alimentatcen eztana lora quin, eguiteco baño euraquin euren venenoen gue ia. Gorrotatcen dituben qualidadeac dira objetoa, eta dioana leguez S.n Gregorio andiac, embidien ali mentuzic naturalena.

¿ Cergaitic Judeguac, eta fariseoac ulu eguindaube aimberte Jesu Christoren contra? ¿ Cergaitic juntatu ciran aimberte viden ya arrica eguiteco, ya ill era guiteco, eguiten citubalaco baño euren embidiac su fritu ecin cituban milagroac? ¿ Cer dago cen erabi gui? Bearda galdu guizon au arriparritcen dabe na munduba mirariaquin. Portu bear lituquia nac, afligitcenditu; sosegatu bear lituquearac,

inquietatcen ditu; moguitu eta convertitu bear litu
quianac, eztau eguiten virtutbaño euren embidia, eta
gorrotoa. Presentatcen jaco Salvadoreari pecatari bat
bear: beguiratcen deutzo, ozatuten dau, eta esaten deut
zo: eugui eguizu confianza, neure semea, zure beca
tubac parcatuco jatzu. Beste batzuc, fariseoetatic
campora, aguertu eutcen euren esquer justoa Jesu
Christori; baña guizon embidioso oneec daugue
sentimentu chit diferenteac, eta dioe euren artean,
dala blasfemo, eta donga bat. Ala embidiac amat
cen dau gacha gachagaitic beragaitic; envenenat
cen ditu accinoric onenac, arerratcen da, eta irese
guiten da sosegatu bear leuquianaz. Bera eta ill fa
riseoaguin: daucagu dolorea icusteaz erreynatcen
oraindio ere Christau arioren artean; dagoz guchi
eztagocenac narturic bere venenoaz, eta onen
artean chit guchi correguitcen diranac. Eztago
gauza gorrotagarriagoric embidiaco becatuba baño,
eta ala ere ezer ez comunago munduban:
Au da icusico dozubena leenengo puntuban.
Ezer ez peligrosoagoric salvacinoaraco embidiaco
becatuba baño, eta ala ere eztago bat ere guchi
ago correguitcen danic. Au izango da biga
rren gueia.

Leenengo Puntua.

Embidia da, dio S.to Thomasec, tristera, eta disgusto bat daucaguna besteren zorionena; afligitu andien felicidadeaz, eta poztu bere desgraciaquin; triste tu datorren onaz, eta poztu equiten jaten gachi an: au da derichona embidia; vicio ain gorroto garria, nola encerratcen dituban batera barre dra, crueldadea, eta desleialtasuna.

4. Barecia da ain aindia embidian, ece dago cenac beragaz beguitandu guradaube erautcen estaubela, jaquinic cembat degradatcen daben beca tu onec naturalera racionala. Onegaitic eraten da Job-eren liburuban, coleriac ill erazuiten de utzala buru jauriari; eta embidiac illten ditubala entendimentu laburrecoac. Egunaz, dio S.n Grego rio Papac, guc estenztegu embidiaric gu baño go rago dagozenai ezpada. Cain andiago zan Abel baño: Esau zan leenengotasuneco derechoagaitic gora goa Jacob-eri: ala ere bata, eta bestea parino ain basu, eta infame bategaitic, ichiten euben derechoz tocatcen jaten honorea, emotarren euren darruz euren anaeai, ceintzuben patu ona sufritu ezin euben: ¿ eta cer embidiatcen euten? ondarun gal corrac. ¡ Ce barera! Embidiosoac, ara emen zuben arganria, edo caractera: zubec dacutzube aurocoac bearra equiten dabela obeto; irabarten

dabela gueiago; daucala estimacino gueiago; eta zubec ecin sufritu eta beguiratu deutzazube: ¿cer gaitic? Cergaitic embidiosoen beguia dan chit donguea, dio Espiritu Santubac. Da Demonioen beguia, dio Sn Juan Chrisostomoc, bacarric billatcen di tubana honoren galquera. ¡Ah! Toxigairtocoa, pensa eguizu ondo, demonioen embidiagaitic sartu zan eriotzea munduban, eta zuc daucazula bazera imitatceco. Embidia deutzazun hā ezin izandeiteque besteric zeure enemigo, edo adisquidea baño, edo persona indiferente bat. Zure enimogoa bada, zure bazera da sentiga xxi eguia: guraceugue galdu, baña etzara atrevitcen: Zure adisquidea bada, zure bazera esta chiquinagoa, emoten deutzazu campotic estimacinoen, eta adisquidetasunen muestrac, eta barrubau daucazu bexetaco catamotcen, eta ciraunen viotz bat. Aventuras zure embidien objetoa izango da indiferentea: ¿cer eguin deutzu bada, eracarteco zure viotceco viastun gustia? ¿Certan ofenditu zau afligitceco bere fortuna onagaz, edo portuteco bere desgraciaquin? Dago bada, bazera andia embidiaco becatuban.

2. Bago inhumanidadea exe. Estago gauza cau eldagoxic embidia baño. ¿Cer animatucituban

Jacob-exen semeac, eta armatu cituban euren escubac Joseren contra, embidiac baño? Yeusten euben bere juicioac, eta prudenciac eguiten eubela amagarriagoa bere aitari, besteac baño, eta onegaitic ezin eguin eutcen verbaric miintazunac espada, con tatu eusteman bere ameraac, gueitu euben euren gorrotoa, eta embidia, galdu gura izan euben artean, eta bota urtoqui zan batera: baña as queman ere saldu euben Madiango Mercatariai: Ala embidia erta lotzatcen violatcean naturale cien, eta gracien leguecac. Guizonac leguez bear dogu euqui humanidadea, eta embidioso batec erta uto: Christau leguez bear dogu euqui Caridadea, eta au falta da embidioso batepan: gorputz baten miembroac leguez bear dogu euqui unioa, eta embidiac deseguintcendau. ¿Ce unio egongo da embidioso batepan? gurako leuque izatea bacarra, eta ez euqui competidoreric. Zuc emacumea gu rako ceuque izan bacarric ederra: zuc, guizona, gurako ceuque izan bacarric estimacinoa, eta bes teac baño aguiragoa. Secu gurtietan, dio Cari dosoc, dacust unioa, abretarañocoetan, bacarric Cari icusten eztod guizonen artean. vici bearrean unioan, eta baquean, embidiac apartalcenditu. Eztago Caridadien graduric chiquinenic embidioso

bategan: Virtute oni dagoca alegratucea alegratceen diranaquin, eta negar eguin eguiten daubenaquin. Bacara feliza, bear dot interesatu zure felizidadeaz, Ezparana, beardot aflixitu zure desgraciaz; badauca zu osasuna, beardot alegratu; bazagoz gueisorik, bear dot exruquitu zure gachagaz. Apostolubac emotenda ben errazoea da, gurtioc gariala gorputz baten miembroac, ceñen burua dan Jesu christo. Ara emen Caridade Christinaduben sentimentubac: ba na embidienac dira gurtiz contracoac: viotz bat lla gaturic pasino rozigairtoco onegaz ez bacarric da baxuba, Eta Cruela, baita desleiala ere.

3. Eztago trampaxic, eta traicinoric, embidiosoac, impleatcen eztaubenic elteeco euren finetara. Eme tic jaioten dira arraio baque fingitubac eta guru zeercoac enemigoaquin; prueba asco daucagu Es cituran. ¿Bearda adisguidetu bere enemigoaz? Em bidioso bat adisguidetcenda: testigu Saul, eguiten dituban baqueac Davidegaz, eta dempora artan bertan billatcen ditu medioac galtceco. ¿Da util eguitea gorrotogarria, eta sospechosoa Criadu fi el bat? Embidiosoac eguiten dau; testigu Nabuco donosoren Ministroac esan eutcenac Principe oni condenatu eguian Daniel botatceera leoen Cuebara. Bear da disimulatu demporaren baten? eguitendau:

testigu Esau ichaiten dabena ill didin artean
bere Aita, sacrificatceco bere Anae Jacob. ¿Be
arda barristu adisquidetasun zarrac, eta lastandu
bere enemigoa? eztauco embidiosoac dificultaderic
eguiten logratceco bere finac: testigu Herodes, eta
Pilatos etcirananac adisquidetu ill eraguiteco baño
Jesu Christori; oh! cembat barera, crueldade, eta
desleialtasun becatu bacar baten!
Embidia da peste bat corrompitcen dabena guztia.
Sartcen da andien Palacioetan; sartcen oficioen, eta
mercatarien dendetan, eta Justiciaco Tribunaleta
rañocoetan. Eztago condicinoric, estaduric, sexoric,
eta edaderic dagoanic libre peste zarzor onetatic.
Umetarañocoac eztagos libre artatic: ¿cinistuco
ceuguie? Orta jaio diza, noiz dauquen ya celoac ber
tear eguiten jaten cariciac gaitic: Erreparatu egui
zube Aitac, eta Amac, eta alderatu eguizube gue
iago guxa iratea batari besteari baño. Ezta
aplicatcen erremedioric bapere, ezta eguin ere
beardana curatceco: aseguratu eraguiten deus
tanac bigarren proposicino au; ezpadago ere
gaurra ain peligrosoagoric nola embidia, diziala
banacac personac bearra eguiten daubenac corre
gitcen artatic.

Bigarren Puntua

Becatari bat convertitu didin, bearda esaputu daquian bere becatuba, eztaquiala ya cometitu, acusatu, eta humillatu didilla: Bada embidioso bat da ichu bat ezauceen eztabena bere becatuba: da ^obstinado^ burtoy bat ichi guraeztabena, eta soberrio bat gura eztabena confesatu; nundic atazatcen dodan dala gauza ^rara^ bacana alaco becataniaconvertitcea.

V. esan arren equiar becatu gurtiac ichututen dabela, ala ere, asegurratu daiquegu, eztagoala batere galtcen dabena gueiago entendimentuba embidiac baño. Onegaitic esaten deuscu Jaquintzubac, eztabela tratatu gura alaco gentear; cergaitic eztaucan parteric jaquituniam. Embidiosoac ustedau, bere becatua eztala erez, edo beintzat dala gauza chiquin bat. Ni eznaz, dio, ez lapurra, ez blasfemoa, ez adulteroa. Baguira equizu pasinoa satituten dabena flaquera disimula gazri batec leguez, eta ezta contuban jaurten dana Cainena, ceñ imitatcen daben. Miserable onec, dio escrituriac, ezin sufritu izan eben, Jaungoicoac bequiratu equien bequi obaquin Abelen ofrendai berai baño, bere pasinoac ichutu eben, eta esan eutzan bere anaerri adisquidetasunen izudiaz: goazen paseatcera Campora; eta baliatu zan ocasino onegaz ilteco. Jaungoicoac bialdu eutzan cartigu exemplar bat, izan zana bere gorputz gurtico icaria:

eguin zan bere berdigu propioa, eta ecarri eben bera gaz bere castiguba; ¿baña convertitu zan orregaitic? ez: bere embidiac ichutu eben, eta ondatu zan mi serablemente bere becatubar. Embidiosoa da ez bacarric ichuba erautcen eztabena bere becatuba, baita burcoia ere, guza eztabena ichi.

2. Embidiosoac, demoniñoaren adisquidea, amatcen dau gacha gachagaitic; eta nola dan becatu bat malicia utcecoa, narrartuten dau falta arrotara, urrintcen dabena gueiago, eta gueiago Jaungoicoagan dic, eta eguiten dautse bere conversinoa gachagoa. Daucanian guizon batec Caridadea, Jaungoicoa dago beragaz, eta bera dago Jaungoicoagan; baña embidiac desterratcen dabenian viotcetic Caridadea, botetan dau beragandic Jaungoicoen adisquidetasuna, eta Jaungoicoa erretiratcen da. Jaquiña da fariseoen embidia Jesu Christoren contra. ¿Cembat vider sati tu ez euben Salvadore divino au euren calumniaquin? Etcirian gueratu persiguitcen eriotziar, crucificatu euben artean lapur bien erdian. Euren embidien gaiztotasuna aguertu zan ain aguirian, ece Pilatosec, Paganoa izanic, descubritu eben, advertitu eubena leguez Evangelistac: *sciebat enim quod per embidiam tradidissent eum.* ¡Nor icaratuco ezta alaco exempluben ostean! ala ere embidiosoac eztagoz

urtean dappenac gueironic: Dira soverbioac gura ertaubenac humildu, eta declaratu euren becatu bai: ¿ eta acusatcen erpadira, ¿ Nola osatuco dira? ¿ confesatcen ditube euren colerac, blasfemiac, alper queria, juramentubac, gauvierac; eta Jaungoicoac gura izan daguiala ichi ertitecen circumstancia acco, esagutu eraguiten daubenac becatuben andita suna, eta isildu ertitecen, edo lotraz, edo bildurrez, edo hipocresiaz, edo soberviaz; baña atcenez, ¿ norda acusatcen dabena embidia, eta esacarri di tuban efecto donguac? ¿ nun dago penitencia confe satcen dabena, embidia dala bere parino dominan tea; eta acusatcen dana egonarena urte ascoan sujeto oituza donga oni? Embidiac bota cituban bere animan surtraiac ain barruna, ece erta uben pensatcen ataratcean surtraitic.

¿ Ychico dituguu, ala ere, errremedio baga embidio soac? ez neure anaeac, convertitu diterque berte gurtiac leguez gracianen socorrubaz.

Erteurted proponitcen errremedio bat baño; baña errremedio soberano, eta eficaz bat; errremidio au da Caridadea: Christus non emulatur. Cari dadea erta embidiosia. Estimatu eguizube, neure anaeac, virtute andi au: berac bacarric derte

arratu daique embidia zuben biotcetic. Alperric laurenpatuco zara amatcea Jaungoicoa gauza guztiz gañean, amatcen ezpadozube proximoa ere zubec ceuroc legüez; eta nola amatuco dozube modu onetan, sentitzen bazara bere desgraciaz, eta sentitzen badozube bere fortu na? Gura badozube bada atara ceube biotcen barrutic pasino ain baju bat, eta ain indiñoa cristau batena, ifini equizube bere lecuban Cari dadea, ceñec enojatu beamean bertzeren onagaitic, bacarric deseatcen dau gueitutzen: Charitas non emulatur. Ah Jauna! emon beigu berorren misericordiagaitic caridadien doe andia, libra tu gaitecen vicio ain peligroso batetic nola embidiena: eguin begui vici gaitecen anaeac legüez proximoac, beguiratu daigun bere ben tajac, eta aurrerapenac, gueureac bailirian legüez; eztaigula euqui guztioc biotz bacar bat, eta anima bacar bat baño, eta guztioc eguin gaitecen diñoac zoriónena, ceñetaraco crea tu gaben, dana berorren gloria porcinoa.

Nic deseatcen deutzubet. &c.

MAN 705